

# Fundazioak **First Lego League** "Masterpiece" erronkan hartuko du parte

First Lego League 23-24, Legoaren pieze-kin sortutako robotikaren bitartez gazteen zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa sustatzen duen nazioarteko ekimena, Euskadin ospatuko da martxoaren 2an. Baina, aurretik, aurtan, taldeek erronka berezi bati egin beharko diote aurre: "Masterpiece". In-nobasqueren eskutik, artearen esparruan teknologiaren aplikazioan parte hartzen duten ikasleak inspiratuko dituen prestakuntza-tailerraren bitartez hartuko du parte Fundazioak.

Erronka oso galdera zehatz batetik abiatzen da: Nola parteka daitezke denbora-pasak edo interesak teknologia erabiliz eta modu sortzailean? Erantzuna errazteko, FLL Euskadiko arduradunek hainbat prestakuntza-tailer antolatatu dituzte, eta horietako bat Santa Maria Katedrala Fundazioak egin du.

Tailerra abenduko hainbat egunetan eman da eta "Igo gure denboraren makinara" izan



du izenburua. 160 gazte baino gehiago bildu ditu inspirazio iturri Katedrala duen esperientziaren inguruan. "Bidaia denboran" ekimenean bisita egin da Katedralaren unerik garantzitsuenetara, eta Errealitate Birtualeko botaurrekoen bitartez ibilaldia egin da mendeetan zehar eraikinean egin den polikromia-erabileran.



Fundaziotik igaro diren taldeen artean Urkide, Divino Maestro, San Prudentzio eta NCLIC ikastetxeetakoak daude.

## Turismo berdeari bultzada

Fundazioak bat egin du Arabako erakundeek ingurumenarekin konprometitutako turismo arduratsua bultzatzeko sustatutako azken ekimenekin, hala nola Green Tourist Card edo Karbono Aztarnaren Kalkulagailua.

Zehazki, "Green Card" txartel turistikoak abantailak eta deskontuak eskaintzen ditu lurraldeko kultur jarduera, saltoki eta sukaldaritza eta ostatu zerbitzuetan, besteak beste, Katedralako bisita gidatuetan edo Aterpetxeko egonaldietan. Green Tourist Card Txartel hau modu digitalean eskura

daiteke greentouristcard.eus webgunearen bitartez.

Era berean, Fundazioak "karbono aztarnaren kalkulagailua" proiektuarekin lankidetzan dihardu. Bisita Zentroan zein aterpetxean, nahi dutenek bidaiaren ingurumen-aztarna kalkulatu ahal izango dute, QR kode bat eskaneatuz, besterik gabe. Tresna horren bitartez, bidaiaren ondorioz klimaren aldaketan izandako eragina eta agortu den ura ezagutuko dituzte, eta bisita "green" izan dadin gomendioak jasoko dituzte.



**Batera lanean:** Fundazioaren eta Aldundiko zerbitzu teknikoen arteko lankidetzaz


## VI. Gazteriaren Foru Erakundea

Gazteriaren Foru Erakundearen eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren arteko harremana urrutetik dator, gure bideak gurutzatu eta Katedralaren ondoko eraikinetan, 87., 89. eta 91. zenbakietan, aterpetxe berria irekitzeko bi-daiari ekin genionetik.

Aterpetxe hori Carlos Abaitua izenekoak utzitako hutsunea betetzera etorri zen, eta lotura horrek lankidetzaz estura eraman gintuen. Haren laguntzarekin, REAJek eta Hostelling Internationalek aintzatetsitako Gazte Aterpetxe bihurtu ginen, eta, gainera, bere oinordeko duin bihurtu ginen.

Hamar urte baino gehiago daramatzagu martxan, eta gure arteko harremana oso hurbila izan da. Aterpetxean Erakundeak kudeatzen dituen Gazte Rock bezalako programetan parte hartzen duten gazteak jaso ditugu.

Talde horien kudeaketak pozez betetzen gaitu, inoiz penaren bat ere ekarri digun arren, alde egiten dutenean batez ere, baina hainbeste



urte elkarrekin eman ondoren, erakusten digu Erakundeak egiten duen lan ona guztiaren gainetik dagoela beti. Bere laguntza urte askotarako izatea esperatu dugula!



**Ondare historiko arkitektonikoa babesteko gomendioen bigarren laburpenaren aurkezpena.** Joan den azaroaren 13an, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren esku dagoen Ondare Historiko-Arkitektonikoaren Zerbitzuak argitaratutako "Plangintza egitean historia eta arkitektura ondarea babesteko gomendioen bilduma"-ren aurkezpena egin zen Katedralaren Atarian.

Bildumaren liburuki hori planeamenduaren idazketan kultura-ondasunak babestean oinarritzen da, eta plangintza gauzatzen duten hirigintza-arloko langileentzako lagungarri izan nahi du, baina baita ondareari buruz kontzientziatzeko eta hori ikusarazteko plataforma ere. Lehen eta bigarren laburpenak hemen daude eskuragarri: <https://web.araba.eus/eu/kultura/historia-eta-arkitektura-ondarea/ikerketak>



Zorionak eta 2024. urte berri on !!

¡¡ Felicidades y próspero año 2024 !!

Santa Maria Katedrala Fundazioak jai zoriontsuak eta 2024 urte oparoa opa dizkie ekimen honen parte diren guztiei, lagunei, sortzaileei, "zutabeei", eta, oro har, Gasteizko eta Arabako gizarte osoari.